



**Arartekoaren 2024R-2389-22 Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 22koa. Honen bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zaio berrius dezala lan-eskaintza bati ezetz esan izana bermatzen duten gutxieneko formazko bermeen faltagatik diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea iraungi duen ebazpen bat.**

### Aurrekariak

1-. Arartekoak herritar baten kexa bat onartu zuen izapidetzeko, zeinaren bidez erakunde honen esku-hartzea eskatu baitzen Lanbidek kexagilea titular zen diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) prestazioa iraungi ziolako.

2022ko irailaren 23ko ebazpen horretatik ondorioztatu da Lanbidek arrazoi hau dela-eta erabaki zuela prestazioa iraungitzea:

“-18/2008 Legearen 28.1.i artikuluan ezarritakoaren arabera: DSBE azkenduko da lan egoki bati edo lan-baldintzen hobekuntza bati uko egiten denean inolako justifikaziorik gabe (...).

-Prestazioa aurrez aiptutako arrazoiengatik azkentzen bada, titularrak ezin izango du berriz ere DSBE eskatu (modalitatea edozein izanik ere) eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte, aipaturiko legearen 28.3 artikulua arabera.

-XXX GARBITZAILE PLENTZIAK ESKAINTZARI UKO EGITEA BORONDATEZKOA DA, EZ BAITA AURKEZTU. DATA 2022/05/30”.

Aurrez, 2022ko uztailaren 6ko entzunaldi-izapidetza bidez, Lanbidek interesdunari jakinarazi zion baldintzen balizko ez-betetze bat gertatu zela, lan-eskaintza bati uko egin izanagatik.

2022ko uztailaren 18an, kexagileak dagozkion alegazioak aurkeztu zituen Lanbideren webgunearen bidez, Nire Lanbidenet atalean. Adierazi zuenez, 2022ko maiatzaren 30ean lan-eskaintza batean eman zuen izena garbiketa-langile bezala, Nire Lanbidenet atal pertsonalaren bidez ere. Hala ere, adierazi du enpresa honek ez ziola inoiz erantzun aipaturiko izen-emateari, eta ez zela telefonoz harremanetan jarri berarekin lan-elkarrizketa bat adosteko.

Ido horretatik, interesdunak erakunde honi jakinarazi dio bere telefono mugikorren 2022ko maiatzaren 30ean eta hurrengo egunetan jaso zituen deien zerrenda eskuratzen saiatu zela; hala ere, aurreordainketa-txartela zuen telefonoa zenez, bere telefono-konpainiak jakinarazi dio ezinezkoa dela informazio hori ematea,



honelako txarteletan ez baita erregistratzen egindako eta jasotako deiak, terminalean bertan bakarrik.

Iraungitzeko ebazpenaren aurka, kexagileak dagokion gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zuen 2022ko urriaren 19an. Nolanahi ere, 2023ko ekainaren 22an, Lanbideko zuzendari nagusiak errekurtoa ezestea erabaki zuen.

Une honetan, interesdunak oraindik pertsona bakarreko bizikidetz-unitatea osatzen du eta bere diru-sarrera bakarrik 52 urtetik gorakoentzako langabezia-sorospena (480 €) —zeina aldi honetan zehar jasotzen jarraitu baitu— eta, diru-sarrera horien osagarri gisa, DSBEa (217,14 €), zeina 2023ko urriko ondoreetarako aitortu baitzaio, urtebetez jaso gabe egon ostean, aztertzen ari den iraungitzearekin batera dekretatutako ezintasunagatik.

2-. Kexa izapidetzeko onartu ostean, Arartekoak informazio-eskaera bat egin zuen Lanbiden, zeinaren bidez aurreko gertakariei buruzko informazioa eskatu baitzuen eta geroago azalduko diren gogoeta jakin batzuk helarazi baitzituen.

Zehazki, Arartekoak jarraian zehazten diren gai hauen inguruko informazioa eskatu zuen.

- “1. Zergatik jo zuen Lanbidek kexagileak uko egin ziola aipatutako lan-  
eskaintzari.
2. Ea Lanbiden jasota dagoen dei bat egin zela kexagileari lan elkarrizketaren  
ordua eta data jakinarazteko. Ea informazio hori administrazio-espeditentean  
jaso den.
3. Aurrean adierazitako gogoetei dagokienez egiten duzun balorazioa.
4. Gora jotzeko errekurtoa zein egunetan ebatziko den aurreikusten duzun.  
Eskertuko nizuke jaulki ondoren ebazpenaren kopia bat bidaliko bazenit.
5. Kexaren xedeari lotutako beste edozein informazio, interesgarria gerta  
daitekeena”.

3-. Lanbideko gaur egungo zuzendaritza nagusiak bidalitako erantzunean, bidalitako txostenean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2023ko ekainaren 22ko Ebazpenaren (zeinaren bidez kexagileak 2022ko urriaren 19an aurkeztutako errekurtoa gaitzesten baita) edukia aipatzen da, beste barik:

*“Revisado el expediente se comprueba que la recurrente se había inscrito en la oferta de empleo con número xxx para desempeñar labores de limpiadora en XXX. Una vez finalizada la convocatoria, tras dar traslado de la relación de aspirantes a la empresa, es ella la encargada de convocarles a las entrevistas de selección e informar a Lanbide del resultado. En el presente caso se constata que XXX puso en conocimiento de Lanbide que había contactado con la ahora recurrente y le había citado a la entrevista pero que ella no se había presentado. Ni en el trámite de audiencia ni en el recurso doña XXX alega ninguna razón que justifique su inasistencia, tan solo contradice lo comunicado por la empresa en el sentido de que niega haber recibido comunicación alguna para acudir a la entrevista. Ante tal contradicción hay que valorar ambas versiones y debe tenerse en cuenta que XXX carece de cualquier motivación para comunicar a Lanbide informaciones contrarias a la verdad y que tampoco tiene interés directo ni en perjudicar ni en beneficiar la recurrente puesto que, además, se deduce que no ha llegado a conocerla y ella no hace alusión a ningún conflicto previo entre ambas partes, por lo que sus comunicaciones se tienen por válidas. Las alegaciones no aportan ningún dato o fundamento de derecho que haga revocar la resolución y por ello el recurso debe ser desestimado ya que es evidente que, al haber contactado XXX con doña XXX pero no haber acudido posteriormente ella a la entrevista previa a la adjudicación del puesto de trabajo, ha incurrido en el incumplimiento establecido en el artículo 28.1.i de la Ley 18/2008 que consiste en rechazar sin causa justificada un empleo adecuado o una mejora en las condiciones de trabajo que pudiera conllevar un aumento del nivel de ingresos. En el presente caso es evidente que habría aumento en el nivel de ingresos en caso de desempeñar las actividades laborales rechazadas al no acudir a la entrevista. Incumplido el requisito anterior, por aplicación del art. 28.1.i de la Ley 18/2008 y del artículo 49 del Decreto 147/2010 de la RGI debe ratificarse la extinción de la prestación por RGI.”*

Beharrezko egitate eta zuzenbide elementuak dauzkagula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

1-. Kexa-espeditate honetan, Arartekoak aztertu du Lanbidek lan-elkarrizketa batera aurkeztu ez izanagatik kexagilearen DSBEa iraungitzeko hartu duen erabakia araudira egokitzen dela. Enplegu-erakunde autonomoak egiazkotasuna eman dio





eskaintza egin duen enpresaren bertsioari, zeinaren arabera, interesdunari deitu zion eta elkarrizketa batera aurkeztu behar zuela jakinarazi zion. Ordea, ez zaio egiazkotasunik eman prestazioaren titularraren bertsioari, zeinak ukatu egiten baitu enpresaren deirik jaso izana, ez eta Lanbideren deirik ere, elkarrizketa baterako dei egiteko.

Erakunde autonomoak prestazioa iraungitzeko erabakia berresteko erabili duen argudioa izan da eskaintza egin duen enpresak "ez duela inolako motibaziorik Lanbideri egiaren aurkako informazioa jakinarazteko, eta ez duela zuzeneko interesik ez errekurtsogileari kalte egiteko, ez eta mesede egiteko ere".

Horri dagokionez, Arartekoak adierazi nahi du enpresa laguntzaileko edo enpresa kontratatzaileko langileak ez direla funtzionario publikoak, eta, beraz, gertakarien bertsioak prestazioen titularraren kontakizunaren balio bera duela.

Nolanahi ere, kexa honetan ez da aztertu izandako elkarrizketaren edukia, hein handi batean, ezin izan delako haren edukia ikusi, ez eta interesdunarekin harremanetan jarri zen eguna eta ordua ere, eta ezin izan da jakin dei hori egin zen ala ez. Era berean, ez da jakin dei horren errealitatea administrazio-espeditentean sartu den, hau da, transkripzioa jasota zegoen edo grabatuta zegoen.

Hori horrela izanik, kexa honetan aztertzen dena da Lanbidek jarraitutako prozedura eta eskubide bat iraungitzeko berme formalak betetzea ordenamendu juridikoarekin bat ote datozen. Era berean, aukera ematen du Arartekoak arlo horretan egindako gomendioen jarraipena egiteko eta erakunde autonomo horren egungo jardunean nola aplikatzen den egiaztatzeke.

Izan ere, Arartekoak antzeko ezaugarriak dituzten kasuak aztertu ditu aurretik, zeinetan DSBEa iraungi egin baita telefonoz egindako lan-eskaintza bati uko egin zaiolako; dei horiek, normalean, erakunde bitartekari batek edo enpresa kontratatzaileak egin ditu.

Aipagarriak dira [diagnostiko-txostena, lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituenak, 2017<sup>1</sup>](#) eta [Arartekoaren 2020R-1941-2018 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 7koa](#). Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio Lanbidek ezarri ditzala administrazio prozedurari buruzko araubidean aurreikusita dauden jakinarazpen bermeak hautaketa prozesuetan parte

---

<sup>1</sup> Eskuragarri hemen: [https://www.ararteko.eus/sites/default/files/2021-12/1\\_4199\\_1.pdf](https://www.ararteko.eus/sites/default/files/2021-12/1_4199_1.pdf).

ez hartzearren edo enplegu bati uko egitearren<sup>2</sup> diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea amaitu aurretik, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei ematen zaien informazioarekin lotutako bestelako hobekuntzak egin ditzala.

Egia esan, DSBEa arautzen duen araudiak ezartzen du DSBEa eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (EPO) jasotzen duten pertsonen enplegu egoki bati uko egiteak edo haien lan-baldintzak hobetzeak berekin dakarrela prestazioa iraungitzeko arrazoietako batean erortzea<sup>3</sup>, eta horrek, gainera, berekin dakar urtebetez ezin izatea beste eskaera bat egin, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikulua arabera.

Hala ere, Arartekoak aipatu berri diren ebazpen horietan nabarmendu zuen lan-eskaintza horiek telefonoz jakinarazteko prozedurak akats batzuk dituela, eta gabezia horiek bereziki larriak direla langabeentzat eta gizarte-prestazioen titularrentzat, prestazio horiek iraungitzea dakarten neurrian. Hain zuzen ere, administrazio-espeditentean dei horri buruzko informazio zehatzik (nork egin zuen, data, ordua eta edukiaren transkripzioa edo grabazioa) jasotzen ez bada, erakunde honen ustez, Lanbideren jarduketa hobetzeko tarte handia azalduko du. Are gehiago administrazioak gaur egun dituen aukera teknologikoekin.

Arartekoaren iritziz, hautaketa-prozesu batean parte hartzeko proposamena egitea, berez, egintza kalifikatua da, eskubide subjektiboa iraungitzeko arrazoi izan daitekeelako; beraz, baditu ondorio juridikoak pertsonen eskubide eta interesen esparruan. Horregatik, deiaren edukia espeditentean sartu behar da, eta errespetatu egin behar dira [Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen \(APEL\) 40-46 artikuluan jasotako baldintzak](#) (arau horrek espeditentean jaso behar dela ezartzen du), araudian<sup>4</sup> ezarritako baldintzak

---

<sup>2</sup> Gaur egun, araudiak DSBEa iraungitzeko honako arrazoi hau jasotzen jarraitzen du:

-Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legean ere jasotzen da lan-eskaintza bat baztertzea DSBEa iraungitzeko arrazoi gisa, 48.1 g) artikuluan: "Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo erakunde laguntzaile batek egindako lan-eskaintza bati uko egitea, lan-jarduera borondatez uztea eta lanpostutik borondatez baja ematea, hori justifikatzen duen arrazoirik ez badago."

-173/2023 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duena: 111. artikulua, "Prozedura amaitzeari" buruzkoa, edo 114. artikulua, "Iraungitzearen ondorioei" buruzkoa.

<sup>3</sup> Egintzak gertatu ziren unean indarrean zegoen araudia. Gaur egun, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legea eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 21eko 173/2023 Dekretua.

<sup>4</sup> Jakinarazi beharreko administrazio-egintzei dagokienez, eta jakinarazpen horren ondorioei dagokienez, APELaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.1 artikulua honako hau xedatzen du: "1. Administrazio-ebazpenak eta -egintzak ematen dituen organoak haien berri jakinaraziko die beren eskubide eta interesak ukitzen dizkien interesdunei, ondorengo artikuluetan aurreikusitako moduan".

betez; izan ere, administrazioa behartzen baitu ebazpen eta administrazio-egintzak administratuei jakinaraztera, pertsona horien eskubideak eta interesak ukituta daudenean. Espedientean ez bada jasotzen deiaren edukiaren informazio xehatua, transkripzioa edo grabaketa, interesduna babesgabetasun-egoeran egongo litzateke. Hala, erabilitako bitartekoek bermatu behar dute **bidali eta jaso izana, data eta eduki osoa**.

Arestian aipaturiko [Arartekoaren 2020R-1941-2018 Ebazpenak](#) gomendio hau formulatu zuen —gomendio horiek dagoeneko jasota zeuden Arartekoaren 2017. urteko Diagnostiko-txostenean—:

- Lanbidek modu bermatzailean jakinaraz dezala hautaketa-prozesuan parte hartzeko betebeharra, edo, hala badagokio, lan-eskaintzaren edukia eta eskaintzen diren lan-baldintzak, eta justifikazio-arrazoirik gabe hautaketa-prozesuan parte ez hartzeak edo enpleguari uko egiteak diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubideari dagokionez dakartzan ondorioen berri eman dezala.
- Espedientean modu frogagarrian azaldu dadila diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrari eta bizikidetzaren unitateko kideei emandako informazioa eta jakinarazpen-saiakerak eta interesdunek alegatutako ondorioak enplegua ukatzeko edo hautaketa-prozesuan ez parte hartzeko.
- Hobetu dadila informazioa eta hizkuntza eskuragarritasuna, Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politika Sailari 2017ko txosten-diagnostikoan eta Arartekoaren 2009ko martxoko Gomendio Orokorrean gomendatu dion terminoetan, honi buruz: *“Etorkinei beren eskubideez baliatzean laguntzeko, administrazioaren ardura zerbitzu publikoen hizkuntza erabilgarritasunaren bermeari dagokionez”*.

Ondoren, Arartekoak bere parte-hartzeak azpimarratzen jarraitu du garrantzitsua dela berme formalak ematea hautaketa-prozesu batean parte hartzeari uko egitean edo enplegu bat baztertzean oinarritutako eskubide bat iraungitzea erabakitzen duen prozedurari.

---

Era berean, arau horren 41.1 artikuluan zera ezartzen da: “Erabiltzen den metodoa erabiltzen dela ere, jakinarazpenak baliozkoak izango dira aukera ematen badute jasota geratzeko bidali dela edo eskura jarri dela, interesdunak edo haren ordezkariak jaso duela edo hartara irispidea izan duela, data eta ordua, eduki osoa, eta bidaltzailearen eta hartzailearen identitate fidagarria. Egindako jakinarazpenaren egiaztagiria espedienteari gehituko zaio”.

4-. Horri dagokionez, abenduaren 22ko 14/2022 Lege berriak, 72. artikuluan, *Bitarteko elektronikoen bidezko komunikazio eta jakinarazpenei* buruzkoan, honako hau jasotzen du:

“1.- Bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak eta jakinarazpenak administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearen legeriari jarraikiz egingo dira, eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren administrazio elektronikoari buruzko araudian xedatutakoari jarraikiz.

2.- Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, ***Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestazioen titular edo onuradunei egiteko komunikazio batzuk –hain zuzen ere, enplegu-eskaintzei edo prestakuntzari buruzkoak, hautaketa-prozesuetan parte-hartzeari lotutakoak,*** egoeraren eta premien hasierako balorazioaren eta Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren inguruko izapideen betetzeari lotutakoak eta 30. artikuluan aipatzen diren agerraldietarako zitazioak–, ***pertsona horiek emandako datuen arabera, posta elektronikoa bidez, telefono-kanal*** finko zein mugikor bidez, Internet bidez edo erregelamenduz finkatzen diren beste kanal batzuen bidez egingo dira.

***Erabilitako bitartekoek bermatu egingo dute hauek jasota geratzea: komunikazioa bidali eta hartu izana interesdunak identifikatutako kanalean edo gailuan, bai eta komunikazioaren data eta eduki osoa ere.*** Kanal edo gailu horiek ez badaude martxan, aipatutako bermeak betetzen direla jasotzeko aukera ematen duen beste edozein bitarteko erabiliko da komunikaziorako, erregelamenduz zehazten diren baldintzen arabera.

3.- Jakinarazpenak egiteko erabiliko den baliabidea eragotzi gabe, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aurreko apartatuan aipatzen diren kanalak erabiltzea sustatuko du interesdunei erraztasunak emateko hauei buruzko informazioa eskura dezaten: prestazio ekonomikoak, izapideak egin eta betetzea, egiteko dauden jakinarazpenak edo lege honetan aurreikusitako prozedurei buruzko beste edozein gai. Haien omisioak ez du eraginik izango jakinarazpenaren baliozkotasunean”.

Gertakariak gertatu ziren unean, indarrean zegoen araudia aurrekoa zen; nolana ere, adierazi den bezala, lege berriaren beren-beregi jasotzen da xedapen hau: “Erabilitako bitartekoek bermatu egingo dute hauek jasota geratzea: komunikazioa bidali eta hartu izana interesdunak identifikatutako kanalean edo gailuan, bai eta komunikazioaren data eta eduki osoa ere”.

Era berean, azaroaren 21eko 173/2023 Dekretu berriak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Araudia onartzen duenak, lan-eskaintzei lotutako komunikazioak arautzen ditu. Zehazki, 30. artikuluan, *Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren komunikazioei* buruzkoan, hau jasotzen da:

“(…) 2.– **Komunikazioek bermatu beharko dute jasota geratzen dela komunikazioa bidali eta jaso dela, baita haren data eta eduki osoa ere.** Horretarako, komunikazio elektronikoko ziurtatuko sistemak, SMS mezuak eta mezu elektronikokoak onartuko dira –bi horietan, mezu ziurtatuak betiere–, baita beste edozein komunikazio-sistema ere, aipatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuek ezarritako organoak onetsi badu.

3.– **Komunikazioak telefonoz egiten direnean, grabatu egingo da elkarrizketa, datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat etorrira,** eta inguruabar horren berri emango zaio pertsonari grabazioa hasten denean. Grabazioa egiten den data eta ordua agerrarazi beharko dira. Gainerako komunikazio-kanalak erabiltzeko, datu pertsonalen tratamendua eskatzen duen bitartean, 3. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, baina ez da interesdunaren adostasunik beharko. (…)

Hain zuzen ere, arau-esparru berriak, bai abenduaren 22ko 14/2022 Legeak, bai azaroaren 21eko 173/2023 Dekretuak, Arartekoaren gomendioak betetzen ditu. Arau horietan, **jakinarazpena igorri eta jaso izana eta haren data eta eduki osoa** ezartzen dira, Arartekoak behin eta berriz gomendatu izan duen bezala.

5-. Ondorio gisa, Arartekoak nabarmendu du kasu honetan interesdunak adierazi duela enplegu-eskaintzan izena eman ondoren ez dela telefono bidezko jakinarazpenik egin eta, beraz, langileak hautatzeko elkarrizketan parte hartzeari uko egin ziola. Gainera, lanpostua eskaini zuen enpresaren azalpenak eskain dezakeen sinesgarritasuna alde batera utzita, egia esan, ez dago komunikazioa transmititu eta jaso izanaren ziurtasunik.

Hori dela eta, Arartekoak berretsi egiten du eskubide bat iraungitzeko prozedura batek arrazoi horregatik izan behar dituen gutxieneko bermeei buruzko gomendioen edukia, bai eta deiari buruzko froga-elementu egiaztagarri, objektibo eta behin betikoa behar bezala jasotzearen garrantzia ere, batez ere kasu honetan, non interesdunaren gertakarien bertsioa eta lanpostua eskaini duen enpresaren bertsioa kontrajartzen baitira.



Kasu horietan, **jakinarazpen hori egiteko modua eta haren edukia administrazio-espeditiarean funtsezko elementu bihurtu behar dira**, eta horrek, era berean, **gutxieneko berme formal batzuk hartzea eskatzen du, interesdunei defentsa-gabeziarik ez eragiteko**. Espediente honetan, erakunde honen ustez, ez dira berme horiek bete.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egiten du:

### GOMENDIOA

Aurreko gogoetak kontuan hartuta, Lanbidek berrikusi dezala kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzeko ebazpena, enplegu-ukapenaren jakinarazpenak ez baitzituen biltzen haren edukia eta irismena ezagutzeko gutxieneko berme formalak, horrek dakartzan ondorio ekonomikoekin.